

“EKIN+” PROGRAMA: ENPRESA EKIMEN BERRITZAILEAK SORTZEKO, HAZTEKO ETA FINKATZEKO PROGRAMAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK. EKONOMIA BULTZATZEKO PLANA DSS2022

ATARIKOA

Donostia Sustapena SAK, Donostiako Udalaren garapen ekonomikorako sozietateak, besteak beste **hiriaren garapen ekonomiko eta soziala** bultzatzea du xede, batez ere **kohesio eta jasangarritasun** irizpideei jarraituz eta hiriko zenbait eragileerekiko eta horien arteko **adostasun eta elkarlanetik**, **berrikuntzaren** aldeko apustu garbia eginez hiria eraldatzeko eredutzat.

2011z geroztik, Donostia Sustapenak eta Donostiako Udalak estrategia hori inplementatzeko urteko plana izan dute, **Ekonomia Bultzatzeko Plana**. Tresna hori sendotuta dago goranzko bilakaerari eta ezarritako helburuak betetzeari esker, eta, horri esker, hiriaren erronka sozial eta ekonomikoei aurre egin ahal izan zaie, tokian-tokian nahiz globalki, azken 10 urteetan, lehiakortasuna eta posizionamendua areagotuz.

Pandemiaren eragin handiak markatutako 2021eko urte zaila emaitza onekin gainditu ondoren, Donostiako Sustapenak tokiko Ekonomia Bultzatzeko Plan berria proposatu du 2022rako.

Donostiako Ekonomia Bultzatzeko 2022ko plan berriak bide berri bati ekin ahal izatea proposatzen du. Bide horrek, **personengan** oinarritutako ekintzen bidez, aurrera jotzearen eta etorkizunari aurre egitearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, **proiektu berritzaileen** garapena babestuz eta proiektu horiei, talentuaren garapenari eta **hiriari** berari euskarri eman diezaieketen tokiko ekosistemaren funtsezko eragileekin sarean lan eginez.

Donostiako Sustapenak hiriari izaera lehiakorragoa eta berritzaileagoa ematen jarraitu nahi du, baina baita sozialagoa, irekiagoa eta kohesionatuagoa ere, gazteen, berdintasunaren eta auzoen arteko gizarte-kohesioaren aldeko apustua egiten duen hiri-eredua indartzeko, 5 ardatzen bidez:

- **Donostia kohesionatua**, lan aukera berriak garatuz eta foku berezia jarriz zailtasun handienak dituzten kolektiboetan.
- **Donostia ekintzailea**, tokiko lehiakortasunari gora eragingo dioten enpresa proiektuak bultzatuz.
- **Donostia** zerbitzu komertzialen hiritzat, kalitatezko merkataritza-ehun berritzailearen alde eginez.
- **Donostia Zientzia eta Berrikuntzan** oinarritutako garapen ekonomikoaren eredu gisa.
- **Donostia Hiri Eraldaketako** proiektu berrien abangoardian.

5 ardatz horien bidez, Donostiako Sustapenak hiriari izaera lehiakorragoa eta berritzaileagoa ematen jarraitu nahi du, baina baita sozialagoa, irekiagoa eta kohesionatuagoa ere, gazteen, berdintasunaren eta auzoen arteko gizarte-kohesioaren aldeko apustua egiten duen hiri-eredua indartzeko.

Horretarako, Donostia Sustapenak Ekin+ programa egituratzen du planteatutako erronka berriei erantzuteko, zerbitzu aurreratuen eta aholkularitza espezializatuaren bidez, eta laguntza ekonomikoen bidez, gure hirian proiektu eta proiektu gazte berriak sustatzeko.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

Ekin+ programaren helburua da Donostia hirian enpresa proiektu berritzaileak sortzea, bultzatzea, haztea eta sendotzea. Horretarako, denboraldi mugatu batean ekintzaileei eta enpresa sortu berriei laguntza eskainiko zaie, proiektu berritzaileak, bizkorgarriak eta inbertigarriak baliozkotzeko, abian jartzeko, finantzatzeko eta heltzeko asmoz. Era berean, proiektu berritzaileen errendimendu altuko komunitatea bultzatuko da eta topaguneak sortu dira ekimen ekintzaile berriak eta tokiko enpresa bultzatzaileak elkartzeko.

Soluzio berritzaileak aurkezten dituzten enpresa proiektu berriei laguntza eman nahi zaie, bai orokorrean, bai eraldaketa ekonomiko eta sozialari laguntzen eta erantzuten diotenei.

Ekin+ 2021 programaren onuradunak izan daitezke honako hauek:

- **Ekintzaileak**, enpresa proiektu berritzailea dutenak eta eskaera aurkeztu ondoren Donostian eratzeko asmoa dutenak.
- **Donostian kokaturiko enpresa sortu berriak** eta enpresa proiektu berritzailea dutenak, gehienez 5 urteko antzinatasunarekin.

Ekin+ programa laguntzeko tresna integrala da eta bertan, ildo hauek sartzen dira:

- 1) **Ekin+ aholkularitza:** akonpainamendu aditua eta laguntza zerbitzu osagarriak.
- 2) **Ekin+ disponibilitatea laguntza:** Ekin+ aholkularitza fasean ezarritako helburuak lortzeko beharrezko dedikazioa izatera bideratutako laguntza ekonomikoa.
- 3) **Proiektua baliozkotzea proiektu berritzaile gisa** Donostiako Sustapenaren programen eta laguntzen deialdietarako, berrikuntzaren eta talentuaren estrategiaren esparruan.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostiako Sustapenak Ekin+ programarako 40.000 euro jarriko ditu. Zenbateko hori aldatu egin ahal izango da Donostiako Sustapenak horrela erabakitzen badu.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Dirulaguntzaren onuraduna izateko, dirulaguntza jaso duen ekintza egin behar duen pertsona izan behar da edo laguntza jasotzea egiaztatzen duen egoera batean egon eta oinarri hauetan dauden baldintzak bete behar ditu, zehazki, laguntza mota bakoitzari dagozkionak.

Dirulaguntzen onuradunak izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak zein pribatuak, estatukoak zein atzerriarrak, eta orain aipatutakoen nortasun juridikorik gabeko elkarteak, ordenamendu juridikoaren arabera ondo osatutakoak, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Ondare sozietateak kanpoan geratzen dira, Gipuzkoako lurralde historikoko sozietateen gaineko zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan zehaztutakoak.

Oinarri hauek dirulaguntzak eskatzeko baldintzak eta horiek nola frogatu zehazten dituzte. Dirulaguntzen Lege Orokorraren (hemendik aurrera DLO) 13. artikuluan ezarritakoa bete behar dute derrigorrez, kasu honetan aplikazio legea da eta.

Ezingo zaie laguntzarik eman pertsona fisikoei edo juridikoei, honako egoera hauetako batean badaude:

- Indarreko xedapenek ezarritako zerga eta/edo Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean ez edukitzea.
- Ebazpen irmoaren bidez zigortu izana dirulaguntzak eta/edo laguntzak jasotzeko aukera galduz, edo horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debeku batean aurkitzea, sexua dela-eta bereizketak egiteagatiko zigorrak barne, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren azken xedapenari jarraikiz.
- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostiako Sustapenarekin zorrak izatea.
- Aurretik emandako laguntzak, guztiz edo zati bat, itzultzeko izatea, itzuli beharreko zenbatekoa itzuli dela egiaztatzen ez den bitartean.

4. ARTIKULUA. DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO ONURADUNEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Oro har, onuradunek ondorengo baldintza hauek bete beharko dituzte deialdian parte hartzeko:

- a) Donostia hirian garatuko diren enpresa proiektu berritzaileak aurkeztea.
- b) Eskatzaileak konpromisoa hartzea programa hau garatzeko ibilbide-orrian eskatzen eta hitzartzen den denbora erabiliko duela. Gutxienez, pertsona batek 4 hilabetez egindako lanaldi osoaren baliokidea izango da, eta proiektuarekin lotutako pertsona baten edo batzuen artean egingo da.
Eskaera egindakoan beste bizkortze programa batzuetan parte hartzen ari diren proiektuen kasuan edo hori Ekin+ programa garatzean egingo duten programen

kasuan, Donostiako Sustapenari jakinarazi beharko diote, eta azken horrek programa honen baldintzak aldatu ahal izango ditu kasu zehatz horretarako, edo, are gehiago, ukatu ere egin ahal izango du.

- c) Irabazizko jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoak edo pertsona juridikoak badira, eskabidea egiteko unean baldintza hauek betetzen dituztenak:

c.1) Laguntzaren xede den jardueraren helbide fiskala eta/edo lantokia Donostian izatea.

c.2) Ekonomia jardueren gaineko zergan hasierako alta, edo hala dagokionean zentsu aitortpenaren alta, eskaera aurkeztu den eguna baino gehienez 5 urte lehenago egitea, Donostia Sustapenak beste alta-data bat baimentzen duenean izan ezik

c.3) Gainera, pertsona juridikoa izanez gero, honako hau bete:

1. Pertsonaren aktiboa ez izatea 10 milioi eurotik gorakoa, edo haren operazioen bolumena ez izatea kopuru horretatik gorakoa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean zehazten den moduan.
2. Plantillaren batez bestekoa ez iristea 50 langilera. Plantillaren batez bestekoa kalkulatzeko, aintzat hartuko dira lanaldi osoko urte bakoitzeko langileak. Lanaldi partzialeko langileen kasuan, zenbaketa izango da lan eginiko orduetako proportzionala.

Entitatea sozietate talde bateko kide denean, Merkataritza Kodearen 42. artikulua arabera, 1. eta 2. zenbakietan adierazitako magnitudeak taldeko entitate guztiei buruzkoak izango dira.

Gutzizko aktiboa eta operazio bolumena zenbatzeko orduan, aintzat hartuko dira Merkataritza Kodearen 46. artikulua eta hura garatzeko arauen arabera egin beharreko ezabatzeak.

Adierazitakoa gorabehera, honako hauek ez dute izango onuraduna izateko aukerarik:

- Irabazi asmorik gabeko elkarteak.
- Honako hauekiko lotura edo % 25etik gorako partaidetza duten erakundeak: Sektore Publikoko erakundeak (horrela izango dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 3. artikulua barneko erakundeak; horren bitartez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), irabazi asmorik gabeko erakundeak, ondare elkarteak eta/edo elkargo profesionalak, betiere ez betetzearen arrazoia ZTBESko kidea den erakunde batekiko lotura edo partaidetza dutenak izan ezik.

- d) Oraindik enpresa eratu gabe duen proiektua bada, enpresa hori Donostia hirian kokatzeko konpromisoa adierazi beharko du eta alta ematea enpresa gisa fase intentsiboa amaitu aurretik. Hori egin ezean, Donostiako Sustapenak programan

parte hartzea etengo du, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik aurkakoa baimentzen ez badu.

- e) Ezingo dute deialdi honetan parte hartu programa honen 2020. eta 2021. urteetako deialdietako onuradunak, bai Ekin+ edota bai Ekin+ Osasuna

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

- 1) **Ekin+ Aholkularitza**, bi fase ezberdinetan:

- **Fase Intensiboa:** 4 hileko iraupena.
- **Jarraipen Fasea:** 6 hileko iraupena.

Fase horietan, zerbitzu hauek eskainiko dira:

- Aholkularitza eta prestakuntza espezializatua.
- Lanerako ibilbide orriaren diseinua, lortu beharreko helburuekin eta garatu beharreko gertaerekin.
- Banako tutoretza, ezarritako helburuak lortzeko.
- Aholkularitza aditua honako gai hauetan: finantzaketa planaren, negozio ereduaren eta gaitasun pertsonalen garapena, nazioartekotzea, berrikuntza, jabetza industrial eta intelektual, merkaturatzea...
- Finantzaketa aukerak, Elkargi SGR Abal Funtserako lehentasunezko aukera eta guzti.
- Proiektua garatzeko Talent House eraikineko Ekin+ *co-working* aretoa erabiltzeko aukera programan guztian.
- Hedapena: programan parte hartzen duten proiektuak bistartzea eta sustatzea, Donostiako Sustapenak antolatutako ekitaldien eta jardueren bitartez.

- 2) **Ekin+ Disponibilitatea laguntza:** gehienez 5.000 euroko laguntza ekonomikoa, lanerako ibilbide orrian ezarritako helburuak lortzeagatik eta egindako lanarengatik.

- 3) **Proiektua proiektu berritzaile bezala baliozkotzea** 2022eko Donostiako Sustapenaren programa eta laguntza deialdietarako, berrikuntzaren eta talentuaren estrategiaren esparruan, betiere laguntza mota bakoitzean onuraduna izateko ezarritako baldintzak betetzen badira eta dagokion laguntza behar bezala eskatzen bada.

Oraindik enpresa eratu gabe duen proiektua bada, bai aholkularitza, bai laguntzaren ordainketa bai proiektua proiektu berritzaile bezala baliozkotzea enpresa hori Donostia hirian kokatzearen menpe egongo da, programa hasten denetik gehienez fase intensiboa igaro baino lehen. Epe hori igarotakoan, baldintza hori beteta ez badago, Donostiako Sustapenak programan parte hartzea etengo du, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik aurkakoa baimentzen ez badu.

6. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN BATERATZEA.

Laguntza horiek bateragarriak dira estatuko edo Europar Batasuneko administrazioek edo erakunde publiko edo pribatuek edo nazioarteko erakundeek xede berdinarekin emandako beste edozein laguntzarekin, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

- Oinarri hauetan jasotako laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013(EB) Erregelamenduan ezarritako "minimis" arauak errespetatuko dituzte. Arautegi hori "minimis" laguntzetarako EBren Funtzionamendurako Hitzarmenaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzko 2013ko abenduaren 24ko EBAOn argitaratuta dago.
- Oinarri hauen arabera jasotako laguntzaren zenbatekoak ezingo du inola ere, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

Eskaera egindakoan beste bizkortze programa batzuetan parte hartzen ari diren proiektuen kasuan edo hori Ekin+ programa garatzean egingo duten programen kasuan, Donostiako Sustapenari jakinarazi beharko diote, eta azken horrek programa honen baldintzak aldatu ahal izango ditu, edo, are gehiago, bertan behera utzi ere egin ahal izango du.

7. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Eskaerak aurkezteko epea honako hau izango da: **Oinarri hauen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunetik laguntza mota bakoitzera bideratutako baliabide ekonomikoak agortu arte** (agortzea Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da) **edo, bestela**, deialdia itxi arte, **2022eko Azaroaren 30ean**.

Eskaera-epea amaitu ondoren, soberakina baldin badago edo hornidura ekonomikoa areagotzen bada, eta Donostia Sustapenak hala nahi badu, oinarri hauek aldatu eta eskaeraren epea zabaldu ahal izango du (egoki diren kanaletan argitaratuko da).

Eskaerak modu telematikoan aurkeztu ahal izango dira, Donostia Sustapenaren web orriaren bitartez (www.fomentosansebastian.eus).

Salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, eskaera Sustapenaren atariaren bitartez egin ezin bada, Sustapenak baimena emanaz gero, eskaera egiteko beste kanal bat gaituko da.

Eranskinak guztiz bete beharko dira eta behar bezala sinatuta egon beharko dira. Sinadura bat behar duen erantsi beharreko dokumentazioa modu digitalean sinatu beharko da.

Informazio gehiago izateko edo kontsultaren bat egiteko, deitu 943 482800 telefono-zenbakira edo idatzi fomentoss@donostia.eus helbide elektronikora, eta gailan honakoa adierazi: 2022 Ekin+ programa.

Jendea artatzeko ordutegia Donostia Sustapenaren web orrian adierazten da.

Donostia Sustapenak eskaera aurkeztu aurreko arreta-zerbitzu bat eskaintzen du, egon daitezkeen zalantzak argitzeko. Zerbitzu hau posta elektronikoz eskatu behar da, aipatu helbidera idatziz, eta banakako edo taldeko saioetan egin ahal izango da, Donostia Sustapenak zehazten duenaren eta proiektu edo laguntzaren tipologiaaren arabera.

Egoki den eskaera-inprimakiarekin batera, beharrezkoa den dokumentazio administratibo, tekniko eta ekonomiko guztia erantsiko da.

Dokumentazio administratiboa:

- Eskaera orria (eranskina).
- Laguntza eskatzen duen erakundearen "bankuko datuak" (eranskina), dagokion banku erakundeak zigilatua, edo bankuko agiri baliokidea, banku erakundeak behar bezala zigilatua. Pertsona ekintzaileen kasuan, justifikazioa egiten denean emanen da.
- Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NANaren kopia.
- Pertsona juridikoa izanez gero, eskatzailearen IFKren kopia, eta, hala behar izanez gero, ahalduaren NANA.
- Laguntza eskatzen duen enpresak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea egiaztatzen duten egiaztagirak.

Onuradunak bere gain hartuko du egin dituen erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agirien egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa.

Dokumentu hauetakoren bat aurretik aurkeztu bada Donostia Sustapenak 2017az geroztik eginiko laguntza programaren batean, ez da berriro atal honetan aurkeztu behar, baldin eta indarrean jarraitzen badu eta ez bada aldaketarik egon haren datuetan.

Donostia Sustapenak zuzenean eskuratuko du zerga betebeharrak betetzearen akreditazioa (Gipuzkoako Foru Aldundia eta Udal Diru Bilketa), ziurtagiri telematikoen bitartez, baita Gipuzkoako Foru Ogasunak jaulkitako jardura ekonomikoen gaineko zergaren historikoa ere (altak, bajak, aldaketak, jardura epigrafeak).

Dirulaguntza eskatzean eta ordainketak egitean Udal Bilketarekin, Foru Ogasunarekin edo Gizarte Segurantzarekin egunean ez dauden erakundeek baldintza hori betetzen dutela egiaztatu behar dute.

Eskatzaileak uko egin ahal izango dio Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzeari; kasu horretan, uko egiteko arrazoiak justifikatu (Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua) eta, hala badagokio, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu

beharko ditu:

- Laguntza eskatzen duen enpresak zerga betebeharrak egunean edukitzearen frogagiriak.
- Laguntza eskatzen duen enpresaren jarduera ekonomikoen historiko eguneratua, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandakoa.
- Laguntza eskatzaileak udalarekin zorrik ez duela egiaztatzen duen Donostiako Udalaren ziurtagiria.

Memoria deskribatzaile teknikoa eta ekonomikoa (“Memoria teknikoa” eranskina)

Memorian teknikoan, garatu beharreko proiektu berritzailea deskribatuko da. Informazio teknikoa eta ekonomikoa jasoko dira, eta proiektuaren diseinu orokorra agertuko da (faseen garapena, eginkizunak, arduradunak, kronograma, emaitza adierazleak); halaber, proiektuaren garapena zein egoeratan aurkitzen den adierazi beharko da. Besteak beste, atal hauek sartu behar dira:

1. Proiektuaren izenburua.
2. Eskatzailearen identifikazio datuak eta datu orokorrak, eta, behar izanez gero, sozietatearenak: IFK, eratze data, kapital soziala...
3. Aurrekariak eta proiektuaren beharizanaren justifikazioa; proiektuak zein arazo konpontzen duen adieraziko da, eta produktua-merkatua aurreikuspena jaso.
4. Proiektuaren deskribapena eta helburuak:
 - a) Ekimenaren egungo egoera produktua eta teknologia/prozesua dimentsioan, itun estrategikoak edo lankidetzako bestelako formula batzuk eta hornitzaileak sartuta.
 - b) Ekimenaren egungo egoera merkatua dimentsioan, *time to market*, merkatuaren karakterizazioa eta proposatzen duen negozio eredua barne; halaber, segmentu planteamenduak, balio proposamenak, banaketa eta komunikazioa, eta bezeroekiko harremana ere jasoko dira, besteak beste.
 - c) Ekimenaren egungo egoera ekonomia eta finantza dimentsioan eta lege arlokoan: inbertsioen aurreikuspena, finantzaketa premiak, monetizazio eredua...
5. Proiektuaren nazioarteko proiektzioa eta eskalagarritasun orokorra.
6. Proiektuaren fase nagusien eta garapenaren deskribapen laburra: lanaren kronograma, segimendua eta kontrol adierazleak.
7. Jarduera Plan orokorraren definizioa epe laburrera ekimenaren eremu funtzional ezberdinetan: produktua/teknologia garapena, marketina eta negozio garapena, araudi erako premien betetzea...
8. Lantaldearen (barnekoa + kanpokoak) deskribapena.
9. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa eta esperotako emaitzak: proiektuaren bideragarritasun teknikoaren, komertzialaren eta ekonomiko/finantzarioaren defentsaren laburpena.
10. Proiektuaren inpaktu potentziala: proiektuak duen lotura hiriko ildo estrategikoekin eta Sustapenak sustatutako sektore estrategikoekin.

Memoria modu erraz eta argian idatziko da, proiektua ulertzea zailtzen duten

teknizismorik gabe. 9. artikuluan zehaztutako balorazio irizpideak baloratu ahal izateko informazio zehatza izango du. Gehienez 8 orrialdeko luzera izatea gomendatzen da.

Onuradunak bere gain hartzen du aurkeztutako dokumentazio osoa egiazkoa izatearen gaineko erantzukizun osoa.

8. ARTIKULUA. ESKAEREN AKATSAK ZUZENTZEA.

Dokumentazio guztia aztertu ondoren, Donostia Sustapenak osorik beteta ez dagoela edo dokumenturen bat falta dela egiaztatzen badu, eskatzaileari akats hori zuzentzea edo beharrezko dokumentuak aurkeztea eskatuko dio, hamar egun balioduneko epean. Hala egin ezean, aipatu eskaera baztertuko dela adieraziko dio, izapide gehiago egin gabe eta horri dagokion epaia emanez. Dokumentazio administratiboa eta dirulaguntza honen berariazko dokumentazioa zuzendu ahal izango dira. Donostia Sustapenak komenigarritzat joz gero, proiektuaren memoriari buruzko azalpenak eskatu ahal izango ditu.

Zuzenketak posta elektronikoz komunikatuko dira, onuradunak harremanetarako posta gisa adierazi duen helbidearen bidez. (jakinarazpenetarako helbide elektronikoa). Jakinarazpen horiek web aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, espedientearen barruan.

Zuzenketak egiteko eskatutako dokumentazioa hasierako eskaera egiteko erabilitako kanal bera erabiliz aurkeztuko da. Posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak ez dira onartuko.

Dirulaguntzak Donostia Sustapenak emandako esanbidezko ebazpenaren bidez ematen edo ukatzen dira, eta posta elektronikoz jakinaraziko da.

9. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN IZAPIDEAK ETA EBAZPENA

Eskaerak erregistro ordenaren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, harik eta laguntza honetarako jarritako baliabide ekonomikoak agortu arte.

Aurkeztutako proiektu guztiak honela ebaluatuko dira:

- Memoria teknikoaren eta ekonomikoaren balorazioa ("Memoria teknikoa" eranskina), 100 puntura arte; edonola ere, gutxienez 65 puntu lortu beharko dira proiektua onartua izateko.
- Donostiako Sustapenarekin elkarrizketa, proiektua eta talde sustatzailea hobeto ezagutzeko eta proiektuak adierazitako irizpideen arabera lortutako hasierako balorazioa egiaztatzeko.

Proiektuak, onartua izateko eta elkarrizketa egiteko, gutxienez 65 puntu lortu beharko ditu memoria teknikoaren eta ekonomikoaren balorazioan.

Ondorengo ezaugarriren bat duten tokiko proiektuak izango dira:

- Merkatutik edo egungo gizartetik bereizten duen balioa.
- Erabilera trinkoa teknologian, ezagutza eta/edo berrikuntzan.
- I+G proiektuak.
- Produktu eta/edo zerbitzu berriak eta erabilgarriak.
- Egungoak baino prozesu edo negozio eredu eraginkorragoak eta gure hiriaren garapen sozioekonomikoan inpaktu handiagoa sortzen dutenak.
- Profil kualifikatuak dituzten eta balio erantsi handiko profil profesional berriak garatzen dituzten proiektuak.

Proiektuak ondorengo balorazio irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

1. Ideiaren bideragarritasuna Merkatu argia eta definitua erakustea edota balio proposamenaren abantaila lehiakorra.	35 puntu
2. Ideiaren egingarritasuna: Talde sustatzailearen egokitasuna, ezagutza maila, esperientzia, kapital erlazonala, proiektuaren garapenaren kronograma...	40 puntu
3. Ekimenaren inbertigarritasuna: Proiektuaren eskalagarritasunaren potentziala eta altxortegiko fluxuak sortzekoa epe ertainera-EXIT...	15 puntu
4. Ekimenaren inpaktu soziala eta ekonomikoa: Besteak beste, COVID-19ak eragindako egoerak sortutako gizarte, hiri eta enpresa arloko erronkari erantzuna ematea. Era berean, Donostiako Sustapenak sustatutako ildo eta sektore estrategikoek bultzatzen dituzten proiektuak.	10 puntu
PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA, GUZTIRA	100 puntu

Donostiako Sustapenak harremanetan jarri ahal izango du eskatzaileekin, proiektuek gutxieneko puntuazio hori gainditu ez arren, 60 puntu edo gehiago lortu badituzte, proiektua behar bezala ulertu den egiaztatzeko.

Eskatutako laguntzaren ebazpena emateko epea bi hilabetekoa izango da eskaera erregistratzen denetik, epe horren barruan dokumentazio administratiboa zuzentzeko denboraldiak sartu gabe. Laguntza ematearen ebazpena ezarritako epean ez emateak ez du esan nahi laguntza emango denik.

Behin eskaera ebatzita eta ebaluazio fasea gaindituta, Ekin+ programari hasiera emango zaio, eta Ekintza Planaren barruan ezarritako helburuak eta banako gertaerak

markatuko dira (proiektu parte hartzaile bakoitzaren ibilbide orria).

Eskaeraren ebazpenaren unean, Donostia Sustapenak aurkeztutako derrigorrezko dokumentazioa aztertuko du. Eskatu gabe aurkeztu den bestelako dokumentazioa ez dago aztertu beharrik dirulaguntzaren ebazpenerako.

Dirulaguntza Donostia Sustapenak egindako berariazko ebazpen baten bidez emango edo ukatuko da.

Ebazpenak posta elektronikoz komunikatuko zaizkie eskatzaileei, Eskaeraren Eranskinean "Jakinarazpenetarako helbide elektroniko" gisa adierazi duten helbidearen bidez, eta web aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, espedientearen barruan, eta onuradunen zerrendak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 Erregelamenduaren (EB) (2013ko abenduaren 17koa) 115. artikuluko 2. atalean jasotzen den zerrenda publikoan argitaratuko dira.

Igorritako ebazpenarekin desadostasunen bat egonez gero, alegazioak aurkeztu ahal izango dira, gehienez, ebazpenaren ondorengo hilabete bateko epean. Horretarako, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri ahal izango da, zeinak izapideak egiteko prozeduren berri emango dion. Donostia Sustapenak zehaztuaren mende egongo da, eta bi alderdiak Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren baitan egongo dira.

10. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezkeen gastuei, berariazko igorpenarengatik, DLOren 31. artikulua aplikatuko zaie.

11. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA ETA LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Ekin+ Prestasun Laguntza **ordainketa bakar baten** bidez ordainduko da, **Ekin+ Aholkularitza Zerbitzuaren Fase Intentsiborako ezarritako helburuak amaitu eta lortu ondoren** eta onuradunaren dedikazio-konpromisoa betetzeko.

Pertsona ekintzailea izanez gero eskabidea egiten denean, gainera, enpresa Donostian eratu beharko da, eta 4. artikuluan irabazizko jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoentzat edo pertsona juridikoentzat eskatzen diren baldintzak bete beharko ditu.

Laguntza justifikatzeko, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) "Justifikazioa" eranskina.
- b) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiri eguneratua, betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko.

Eskaera ekintzaile gisa egin bada, agiri horiez gain, laguntza justifikatzeko eta enpresaren eraketa ziurtatzeko honako hauek aurkeztu beharko ditu:

- Pertsona juridikoa bada, IFKren kopia.
- Pertsona juridikoa bada, eskritura edo eraketa agiriak, estatutuak edo sorrera akta; bertan, beren jardura erregulatzeko araudiak jasoko dira, behar bezala inskribatuta, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan, zer-nolako pertsona juridikoa den kontuan hartuta. Berezko nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilaturiko kontratu pribatua sartuko da.
- Autonomoen erregimenean edo erregimen baliokidean alta eman izanaren partearen kopia.
- Enpresaren banku-datuen eranskina, dagokion banku-erakundeak zigilatua, edo banku-agiri baliokidea, bankuak behar bezala zigilatua.

Bi kasuetan, Donostia Sustapenak, egiaztagiri telematikoen bitartez, zuzenean lortuko du Gipuzkoako Foru Ogasunak igorritako zerga-betebeharrak betetzeari dagokion egiaztapena (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga-bilketa).

Dirulaguntzaren eskaera eta ordainketa ezberdinak egiteko unean Udal Zerga-bilketaren, Foru Ogasunaren edota Gizarte Segurantzaren betebeharrekin egunean ez dauden Erakundeek horiekin egunean daudela egiaztatu beharko dute.

Eskatzaileak berariaz uko egin ahal izango dio Donostia Sustapenak datu horiek atzitzeari, baina aurkakotasun horretarako arrazoiak eman beharko ditu (2016/679 Erregelamenduaren (EB) 21. art., Datuen Babesarena) eta egoki diren egiaztapenak aurkeztu beharko ditu.

- Dirulaguntza eskatzen duen enpresaren zerga-betebeharrekin egunean izatea frogatzen duten egiaztagirak.
- Donostiako Udalaren ziurtapena, dirulaguntzaren eskatzaileak berarekiko zorrik ez duela egiaztatzen duena.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Onuradunak programa bere borondatez uzten badu edo hartutako betebeharrak behin eta berriz betetzen ez baditu, Donostiako Sustapenak gainerako ordainketak ez ordaintzeko eskubidea izango du.

Edonola ere, laguntza justifikatzeko ezarritako epea igarotzen bada dagokion dokumentazioa aurkeztu gabe, Donostiako Sustapenak onuradunari eskatuko dio dokumentazio hori aurkezteko gehienez 15 egun naturaleko epean, jakinarazpena egiten den unetik kontatzen hasita. Behin epe berri hori igarota, dagokion dokumentazioa aurkeztu ez bada, laguntza ukatutzat emango da, eta, beraz, kobratzeko eskubidea galduko du, edo horren lekuan, dagoeneko jasotako zatia ordaindu beharko du.

12. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Laguntza hauen onuradunek Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak orokorrak onartuko dituzte, ondorio hauetarako aplikatu baitaiteke. Edonola ere, betebeharrak hauek izango dira (adierazpen gisa eta mugatzaile izan gabe):

- a) Laguntza diruz lagundutako jardueretarako erabiltzea.
- b) Aurkeztutako proiektuko baldintzak errespetatzea eta betetzea, Donostiako Sustapenaren berariazko baimena izandakoan izan ezik.
- c) Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa ezarritako moduaren eta denboraren arabera aurkeztea.
- d) Jasotako laguntzak aplikatzea justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, egiaztatzeko eta/edo ikuskatzeko jardueretarako, eta, edonola ere, aplikatzeko araudian ezarritako epearen barruan.
- e) Proiektuaren barneko jardueren gastu eta diru sarrera guztiak kontabilizatzea.
- f) Kontabilitate liburuak behar bezala gauzatzea, hori nahitaezkoa denean.
- g) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea.
- h) Donostiako Sustapenari jakinaraztea edozein egoeraren aldaketa subjektibo edota objektibo, laguntzak emateko kontuan hartua izan bada.
- i) Donostiako Sustapenak emandako laguntzen inguruan funtzioak betetzerakoan eskatutako informazio guztia ematea.
- j) Donostiako Sustapenari jakinaraztea helburu bererako jasotako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo bestelako baliabide batzuk.
- k) Donostiako Sustapena aipatzea laguntzen xedeko proiektuak sustatzeko eta hedatzeko jardueretan, erakundearen irudia edo irudi testua sartuta egingo diren komunikazio euskarrietan (webgunea, kartelak, mezu elektronikoak, etab.).
- l) Laguntzen xedeko proiektuen jarraipena eta bilakaera aztertzeko Donostiako Sustapenak deitutako bileretara joatea.
- m) Donostiako Sustapenak jasotako laguntzaren inguruan antola ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpenean, jarduerak, emaitzaren jarraipena, etab.).
- n) Laguntzaren xedeko eskaeran aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein gorabeheraren berri ematea Donostiako Sustapenari.
- o) Donostiako Sustapenari jakinaraztea Ekin+ programak iraun bitartean proiektuak beste bizkortze edo *mentoring* programa batean parte hartzea erabaki duen, eta, halaber, Ekin+ programa eskatzean horrelakoren batean parte hartzen ari den.
- p) Donostiako Sustapenarekin elkarlana egitea, hala behar izanez gero, finantza kontrolatzeko eta egiaztatzeko egin ditzakeen jardueretan, eta eskatutako informazio eta dokumentazio guztia ematea.
- q) Laguntzaren xedeko jardueretarako beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- r) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- s) Donostiako Sustapenari baimena ematea I+G+b enpresen eta eragileen direktorioetan ondorengo datu hauek argitaratzeko: harremanetarako datuak, jarduera, izen komertziala, logoa, marka eta onuradunak trafiko ekonomikoan

erabilitako beste edozein zeinu bereizgarri. Horretarako, elementu horiek ustiatzeko lizentzia emango dio onuradunak Donostiako Sustapenari, adierazitako helburuetarako erabiltzeko, eta erabilera baketsua egitea bermatuko du Sustapenak.

- t) Besteak beste, komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mezu elektronikoak, megafonia...), sustatzeko eta zabaltzeko materialen edizioan, antolatutako jardunaldietan eta ekitaldietan EAEko hizkuntza ofizialak erabiltzea bermatzea (euskarari lehentasuna ematea).

Onuradunek aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari, testuak itzultzeko nahiz zuzentzeko (itzulpenak, gehienez, 1.000 karaktere hilabetean, eta zuzenketak, 9.000 karaktere), betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira:

<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es>

13. ARTIKULUA. ITZULTZEA.

Onuradunak, pertsona fisiko edo juridikoak, jasotako laguntza ekonomikoa itzuli beharko du, dagokion diruaren legezko interesarekin batera –jarritako zenbatekoak ordaindu diren unetik aurrera–, honako kasu hauek gertatzen badira:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak modu larrian eta/edo behin eta berriz ez betetzea. Honako hauek joko dira ez-betetze larritzat eta/edo errepikatutzat: oinarri hauetako betebeharren bat edo batzuk behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako edozein datu, ziurtagiri, txosten edo dokumentazio faltsua izatea edo faltsutzea; eta/edo oinarri hauen esparruan jasotako laguntza osoa edo zati bat desbideratzea aurreikusitakoez bestelako helburu baterako.

- Laguntzaren xedea oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra ez betetzea, eta justifikazioa nahikoa ez izatea.

- Onuradunaren jardueraren gainean egin daitezkeen egiaztatze eta ikuskatze jarduketei aurka egitea, aitzakiak jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea, bai eta kontabilitate, erregistro edo dokumentu kontserbazioko betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta, horren ondorioz, ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregularitasuna, edo edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik helburu bererako jasotako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak ere badirela.

- Jarduera gainfinantzatzuz gero, gainfinantzaaketaren zenbatekoa itzuli beharko da.

Aurrekoa kontuan hartuta, laguntza hauek jaso ahal izateko eskatzen diren baldintzak une oro bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak laguntzak itzultzea eskatu ahal izango du, aurreko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan. Era berean, ez-betetze larrienen kasuan, hala nola datuak faltsutzean edo jasotako laguntza osoa edo zati bat desbideratzean, Donostiako Sustapena SAK ahalmena izango du emandako laguntza baliogabetzeko eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztiak

itzuli edo ordain dakizkion, eta, gainera, jasotako zenbatekoa halako bost ordaintzeko eskatu ahal izango du.

Donostia Sustapena SAK egiaztatzen badu, eta ondoren deskribatzen diren baldintzetan onuradunari jakinarazten badio, oinarri hauetan ezarritako arrazoietakoren bat gertatzen dela, laguntza itzuli beharko da.

Itzulketa laurogeita hamar egun naturaleko epean egin beharko da, Donostiako Sustapena SAK, burofax bidez, onuradunari artikuluko honetan aurreikusitako itzulketa-kausaren bat gertatzen dela jakinarazten dion unetik zenbatzen hasita.

Era berean, eta aurreko paragrafoetan ezarritakoaz gain, Donostia Sustapena SAK eskubidea izango du, BI (2) URTEKO epean zehar, Donostiako Sustapena SAK eskaintako beste edozein laguntza edo onuratan parte hartzea galarazteko oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat zabarkeriaz bete ez duten edo erakutsi duten jokabideak fede onaren arauak urratu dituen pertsona fisiko edo juridikoei.

14. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA.

Datuak babesteko indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, Oinarri hauetan araututako laguntzen eskatzaileei jakinarazten zaie Donostiako Udalak gorde egingo dituela, beren tratamendurako, eskaera egitean emango dituzten datu pertsonalak, baita aurkeztutako edozein dokumentazio ere, laguntzak izapidetu eta kudeatu bitartean. Beraz, Donostiako Udalak izango du datuen tratamenduaren erantzukizuna, eta Donostia Sustapena izango da haien kudeatzailea eta, beraz, tratamenduaren arduraduna. Tratamenduaren helburua izango da eskaerak kudeatzea eta laguntzak izapidetzea.

Tratamenduaren zilegitasuna oinarritzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikuluan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko erregelamendua - DBEO): tratamendua beharrezkoa da interes publikoko eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa

Oinarri hauetan edo eskaera inprimaketan hala adierazten bada, nahitaezkoa izango da datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa ematea, eta ez bada ematen edo datu okerrak ematen badira, ez da eskaera izapidetuko.

Datuak gorde egingo dira datuak biltzeko helburua betetzeko eta helburu horretatik eta haien tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak estatuko nahiz estatuz gaindikoa erakundeen esku utzi ahal izango dira, laguntzak kofinantzatu

edo haien kudeaketan Donostia Sustapenarekin lankidetzan aritzen direnak, beharrezkoa izanez gero eta soil-soilik laguntzen emakida kudeatzeko.

Halaber, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela onuradunaren identifikazio datuak eta laguntzaren zenbatekoa argitaratzea, Donostia Sustapenaren webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (azken kasu horretan, soil-soilik laguntza 3.000 eurotik gorakoa denean edo, zenbatekoa gorabehera, galdagarria denean).

Interesdunek erabili ahal izango dituzte datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubideak, baita datuak babesteko araudian jasotako beste eskubide batzuk ere, hala badagokio, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuan (Ijentea kalea 1, 20003).

Eskubide horiek erabiltzean interesdunak uste badu ez diotela behar bezala erantzun, erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Easo kalea, 41 – 20.006 Donostia.. Hala ere, lehen auzialdian, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio Datuak Babesteko Donostiako ordezkariari: dbo@donostia.eus.

Ondorio horietarako, jakinarazten da eskatzaileak, dagokion eskabidea aurkeztuta, berriaz baimentzen dituela aurreko paragrafoetan aipatu diren komunikazioak eta datu lagapenak.

15. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA.

Indarrean sartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango dira aditzera eta berauek argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Eskabideak aurkezteak interesdunek oinarriak guztiz onartzen dituztela esan nahi du.

Erantzukizunetik salbuestea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jardueren ondorioz edo horren eraginez sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen arduradun bakarra, eta Donostiako Sustapena kontzeptu horiengatik edozein erantzukizunetik kanpo utziko du.

16. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Emango diren laguntzak oinarri hauetako arauen arabera zuzenduko dira eta, modu osagarrian, baita DLOn eta hura garatzeko araudia onartu zuen 887/2006 Errege Dekretuan (uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena; aurrerantzean, DLOE) jasotzen diren arauen arabera ere. Hala ere, DLOn jasotako kudeaketa oinarriei dagokienez eta 20. artikuluan erreferentzia egiten

zaion informazioari dagokionez eskusiboki, aplikazio hori zehazten duen DLOren 3.2 artikuluko bigarren paragrafoan xedatzen denaren arabera zuzenduko dira.

Beste kasu batzuetan, aipatutako DLO eta DLOE oinarri hauek legezko testu horiei berariazko aipamenak egiten dizkietenean aplikatuko dira soilik.

Donostian, 2022ko Ekainaren 2an.

Marisol Garmendia Beloqui.

Ekologia, Osasun Publiko, Garapen Ekonomiko eta Enpleguko zinegotzi ordezkaria.